5/2025 TXOSTENA, OTSAILAREN 18KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA.

XEDEA: OGASUN ETA FINANTZAKO SAILBURUAREN ETA JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILBURUAREN AGINDU-PROIEKTUA, JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILEKO KONTRATAZIO-MAHAIAREN OSAERA EZARTZEN DUENA.

I.- AURREKARIAK.

2025eko urtarrilaren 29an, Justizia eta Giza Eskubideen Saileko Aholkularitza Juridikoak txostena eskatu zuen Justizia eta Giza Eskubideen Saileko kontratazio-mahaiaren osaera ezartzen duen Ogasun eta Finantzetako sailburuaren eta Justizia eta Giza Eskubideen sailburuaren agindu-proiektuari buruz.

Eskaera Ondare eta Kontratazioko zuzendariari egin zaio, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeko presidentea den aldetik.

Espedientean (erreferentzia: DNCG_ORD_410/25_16), zeina prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetu baita, dokumentu hauek daude:

- Justizia eta Giza Eskubideen Saileko kontratazio-mahaiaren osaera ezartzeko Ogasun eta Finantzetako sailburuak eta Justizia eta Giza Eskubideen sailburuak emandako Aginduaren zirriborroa.
- Agindu horren zirriborroaren justifikazio-memoria.
- Justizia eta Giza Eskubideen Saileko Aholkularitza Juridikoaren txostena.

II.- ESKUMENA.

Txosten hau nahitaez eman beharrekoa da, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27.a) .2 artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratazio-mahai iraunkor bat edo kontratu anitzetarako eginkizunak dituen bat sortzeko agindu-proposamen bat delako.

III.- KONTRATAZIO-MAHAIEN ARAUBIDE JURIDIKOA.

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (aurrerantzean, SPKL) 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten du Espainiako ordenamendu juridikora, eta, 326. artikuluan, kontratazio-organoari laguntza emateko kide anitzeko organo gisa arautzen ditu kontratazio-mahaiak. Lege horren azken xedapenetako lehenengoaren arabera, 326. artikulu hori ez da oinarrizko legedia.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazio-araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak 8. eta 9. artikuluetan arautzen ditu kontratazio-mahaiak. Lehenengoa, kide anitzeko organo horiek eratzeko eta kideak izendatzeko arauak ezartzeko da, eta, bigarrena, berriz, haien eginkizunen norainokoa zehazteko.

Oro har, 8. artikuluak xedatzen duenez, kontratazio-organoek kontratazio-mahai baten laguntza izango dute esleipen-prozedura irekietan, mugatuetan eta negoziatu publizitatedunetan, eta mahai hori izango da eskaintzak baloratzeko organo eskuduna. Lizitazioaren berri iragarki bidez eman beharrik ez duten prozedura negoziatuetan, kontratazio-organoak aukeran izango du kontratazio-mahaia eratu edo ez. Kontratazio-organoari dagokio mahaiko kideak izendatzeko eskumena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkaria izan ezik, haren titularrak izendatuko baitu.

Artikulu berean, 2. apartatuan, kontratazio-organoari laguntzeko organo horiek eratzeko arauak finkatzen dira, eta ezartzen da kontratazio-mahaiak honako hauek osatuko dituztela: lehendakari batek, idazkari-lanak egingo dituen pertsona batek eta, gutxienez, hiru kidek. Kide horietako bik, bestalde, nahitaez eginkizun hauek bete beharko dituzte hurrenez hurren: kontratazio-organoaren aholkularitza juridikoa eta aholkularitza

teknikoa; gainera, kontu-hartzaile bat beharko da edo kontratazio-organoaren ekonomia- eta aurrekontu-kontrolaren eginkizuna esleituta duen pertsona bat.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) ondasunak, azpiegitura teknologikoak eta zerbitzuak kontratatzen direnean, IKTen arloan eskumena duen zuzendaritzako pertsona batek parte hartu beharko du kontratazio-mahaian. Kontratazio-organo eskudunak izendatuko du, zuzendaritza horren titularrak proposatuta.

Aukerako modura, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzako ordezkari batek ere parte hartu ahal izango du laguntza-organo horretan, kontratazio-organoak hala eskatzen badu.

Kontratazio-mahaia osatuko duten pertsonak izendatzeko moduari dagokionez, aipatutako 8. artikuluaren 3. apartatuaren arabera, izendapena iraunkorra izan daiteke edo kontratu bakoitza esleitzeko berariaz osatutakoa. Ondoren zehazten denez, izendapena iraunkorra bada edo kontratu anitzetarako eginkizunak esleitzen bazaizkio, kontratazio-arloan eskumena duen saileko titularraren eta dagokion saileko titularraren edo erakundea atxikita dagoen saileko titularraren agindu bateratuaren bidez eratuko da, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Eta beste betekizun bat gehitzen du: kideen osaera eta identifikazioa kontratuaren administrazio-klausula partikularren agirian sartuko dira beti, eta dagokion kontratazio-organoaren kontratatzaile-profilean argitaratuko da, kontratatzeko gaitasuna eta kaudimen- edo sailkapen-baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak kalifikatzeko bilera egin baino gutxienez hamar egun lehenago.

IV.- KONTRATAZIO-MAHAIEN OSAERA.

Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren bidez Eusko Jaurlaritzako sailak berregituratu dira, eta, berregituraketa horren ondorioz, sail bakoitzari esleitutako jardun-eremuak zehaztu dira, Justizia eta Giza Eskubideen Sailarenak ere barne, zeinak Dekretuan zehaztutako funtzio eta jardun-arloak hartu baitu.

Hala, Justizia eta Giza Eskubideen Sailak 18/2024 Dekretuaren 20. artikuluan zehaztu ditu bere eginkizunak eta jardun-arloak, eta, horrekin bat etorrita, hamabigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, desegindako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko organo eta unitateek osatzen dute Saila, salbuespen direla Gizarte Politiketako Sailburuordetzako organo eta unitateak.

Bestalde, azaroaren 5eko 326/2024 Dekretuak Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri du, eta, beraz, ezinbestekoa da sail horretako kontratazio-organoei haren eskumeneko gaietan laguntzeko organoak berrantolatzea.

Arestian azaldutakoarekin bat etorriz, ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren eta azaroaren 5eko 326/2024 Dekretuaren bidez Eusko Jaurlaritzako sailak berregituratu direnez, xedapen berri bat behar da, Justizia eta Giza Eskubideen Saileko kontratazio-organoari lagunduko dion kontratazio-mahaiaren osaera eguneratzeko.

Halaber, 326/2024 Dekretuaren 8.2 artikuluan ezartzen denez, Zerbitzu Zuzendaritzari dagokio kontratazio-espedienteak izapidetzea eta bitarteko propioei eta zerbitzu teknikoei mandatuak egitea. Orobat, Sailaren kontratazio-organo gisa jardungo du lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, sektore publikoko kontratazioa arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera, 1.000.000 eurotik gorakoa ez duten kontratuetan.

Era berean, eta baldintza beretan, organo horri dagokio negozio juridikoak sinatzeko eskumena, baldin eta, negozio juridiko horien ondorioz, sektore publikoko kontratazioaren araudian xedatutakoaren arabera Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren bitarteko propio pertsonifikatuaren izaera duen entitate bati egiten bazaio prestazio jakin bat egiteko mandatua.

V.- AGINDU-PROIEKTUA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen txostenaren xede den agindu-proiektuak Justizia eta Giza Eskubideen Saileko kontratazio-mahaiaren osaera iraunkorra ezarri nahi du.

Agindu-proiektuak azalpen-zatia, artikulu bakarra, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat ditu. Proiektuak errespetatu egiten ditu kontratazio-mahai iraunkorretako edo kontratu anitzetarako eginkizunak esleituta dituzten kontratazio-mahaietako kideak izendatzeko arau-maila eta organo eskudunak, bat etorrita Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8.3 artikuluan ezarritakoarekin.

Proiektuaren artikulu bakarraren lehenengo apartatuan ezartzen denez, Justizia eta Giza Eskubideen Saileko kontratazio-organoek kontratazio-mahai baten laguntza izango dute prozedura irekietan, mugatuetan eta prozedura negoziatu publizitatedunetan. Mahai horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 9. artikuluko eginkizunak beteko ditu.

Era berean, 2. apartatuko a) letran, Saileko ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketaren arloko arduradunari esleitzen zaio kontratazio-mahaiaren lehendakaritza. Lanpostua hutsik badago, titularra kanpoan edo gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, Saileko aholkularitza juridikoko arduradunak ordezkatuko du. Hori guztia kontratazio-mahaien osaera arintzeko eta errazteko.

Mahaiko kideei dagokienez, 2. apartatuko b) letrako lehen puntuan jasotzen denez, kontratazioa sustatzen duen saileko zuzendaritzaren ordezkari batek parte hartuko du, kontratazio-organoari aholkularitza teknikoa emateko. Era berean, aipatutako letraren bigarren puntuan, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkaria aipatzen da. Pertsona hori uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8. artikuluaren 2. apartatuaren lehen paragrafoaren azken tartekian aipatzen den kide "kontu-hartzailea" bada ere, esaldiaren amaiera kendu behar da ("kontratazio-organoaren ekonomia eta aurrekontuak kontrolatzeko zeregina esleituta duen pertsona bat"), eta honela utzi testua: "Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkari bat, bulegoaren titularrak izendatua".

Halaber, agindu-proiektuaren 2. apartatuaren b) letraren hirugarren puntuan, kide bat

ezartzen da informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) arloko zuzendaritza eskudunaren ordezkari gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak kudeatzeko eredua arautzen duen martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuan aurreikusitako kasuetan.

1. artikuluko c) letran, idazkari/bokal aholkulari juridikoaren figura jasotzen da: Zuzenbideko gradua edo lizentzia duen teknikari bat. Zerbitzu Zuzendaritzako Kontratazio Zerbitzuari atxikita egongo da, eta kontratazio-organoak izendatuko du. Kontratazio-organoari aholkularitza juridikoa emango dio, eta kontratazio-mahaiaren idazkaritza-lanak egingo ditu, hitzarekin eta botoarekin.

Era berean, ezartzen da ezen, aukerako moduan eta kontratazio-organoak eskatuta, organo horretako kide izan ahalko dela Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzako ordezkari bat, titularrak proposatuta eta kontratazio-organoak izendatuta.

Agindu-proiektuaren artikuluaren 5. apartatuan, honako idazketa hau proposatzen da indarrean dagoen araudira egokitzeko: “Nolanahi ere, nola osatu den eta kideak nor diren adieraziko da kontratuaren administrazio-klausula zehatzen pleguan, eta kasuan kasuko kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da, kontratuak egiteko gaitasuna duela egiaztatzeko dokumentazioa kalifikatzeko bilera egin baino hamar egun lehenago gutxienez eta kaudimen- edo sailkapen-baldintzak betetzen dituela kalifikatu baino hamar egun baino lehen”.

Azkenik, agindu-proiektuaren xedapen indargabetzailean ezartzen da indargabetuta geratzen dela agindu hau: Agindua, 2021eko martxoaren 15ekoa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baita Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Kontratazio Mahaiaren osaera.

Azaldutakoagatik, **ALDEKO TXOSTENA** ematen zaio Ogasun eta Finantzetako sailburuaren eta Justizia eta Giza Eskubideen sailburuaren agindu-proiektuari, zeinaren bidez ezartzen baita Justizia eta Giza Eskubideen Saileko kontratazio-mahaiaren osaera, betiere haren edukia txosten honetan azaldutakora egokitu ondoren.